

GURE JAUNARI ZERURAKO IGOERAN



Mundu goibeldu illun-illuna
 zure jayotzan aurretik
 arkitutzen zan ezjakiñian
 zorigaiztoko aldetik
 nola zeukaten infernutarrak
 zartagiya kirtenetik
 eragozpenik gabetanikan
 ibillitzeko nun-naitik.
 Luzbel, Satanás eta besteak
 jarriyaz gure gañetik,
 mundu guziyan zeuden nagusi
 infernubaren partetik,
 gure asabak eziñ irtenik
 illunpe triste artatik
 zeudelakoan katez lotubak
 alderdi guzietatik,
 bañan Belenen jayo ziñan zu
 Mariyaren sabeletik
 eta argiya abiyatu zan
 zabaldutzen ber-bertatik.
 Era berean infernutarrak
 aserraturik ordutik
 ziruditela eraginazi
 ziyezula zuk burutik
 eziñ eseriz, eziñ etzanik
 egon eziñikan chutik,
 suturik zeuden gañ eta azpi

aurretik eta atzetik,
 tu galdu nai ta eziñ galdubaz
 irten nayeana larrutik.
 Erodes alde batetikan ta
 deabru zarrak bestetik
 ¿zer ote zuten bada emango
 zu azkar illtzeagatik?
 bañan etorri ziñadelako
 Jaungoikoturik zerutik
 oyek joan bear izandu zuten
 surtara mundu gozotik.
 ¡Nola jayo ta nola bizitu
 zeran zu ibar onetan
 santutasunik aundiyeñian
 ogei ta amar urtetan!
 beste irurak igaroturik
 artzai justuban lanetan,
 zure Aitaren naya egiñaz
 egunaz eta gauetan,
 pasiyu santu, santu santuba
 sufriturikan benetan
 odol guzizko garbi garbiya
 iñuririkan Golgotan
 eta aizkenik gurutzean ill
 bazinduzten zu lotsetan,
 zedorren Ama miñerituba
 zegola bere oñetan,

ostiral Santu arratsaldeko
 iru ordu santuetan,
 lur-azpiratu zinduztelarik
 ama goyenaren bistan,
 irugarrengo egunian zu
 zeunden obian ber-bertan
 pistuta alcha ziñadelako
 koroiturikan batetan,
 oroikidatzen du Eleizak au
 zintzoro gizaldiyetan.
 Ondorenian zuk egiñikan
 agerkera egokiyak,
 eta emanaz ikasleai
 eskubide chit aundiyak,
 egidaturik zure sinismen
 guzizko garailariyak,
 banaturikan Jaungoikoaren
 lege on gozagariyak,
 desegiñikan iritzi char ta
 oitura lotsagariyak,
 zabaldurikan bildoch guziyai
 ichu zeuzkaten begiyak,
 alaiturikan len triste zeuden
 munduko ibar-mendiyak,
 utzirik pozaz ta atsegiñez

arkumecho ta ardiyak,
 lajaturikan iñoiz galduko
 ez diran oroigarriyak
 kristautu eta anayaturik
 basati errukariyak
 erakutsirik zeruko bide
 gure poz-emangariyak,
 berrogei-garren egunean zu
 jantzirik apaiñgarriyak,
 diz-diz egiten zizubela ibai!
 buru dontsuban koroiyak
 ziñaden igo zeruetara
 eramanikan gloriyak,
 eta an zaude beti zaiturik
 artaldearen premiyak.
 Ez baditugu bada betetzen
 pekatuakin neurriyak,
 gaur gizon asko geraldurikan
 argalak eta utziyak
 gaitubelako biziro maite
 zure Ama maitatiyak,
 Ama guziyen gañetik dagon
 Ama sortzez chit garbiyak,
 onen bitartez salba itzatzu,
 zedorren bildoch guziyak.

RAMOS AZKARATE-KUAK.

